

barnera. Afganistanek behin eta berriro eskatu izan du, mugaz alde bitako pax-tunek bat egiterik ez baldin bazuten be-hintzat, Islamabadek bere aldekoiei autonomia bat-edo eman ziezaien. Isla-mabad urduri dagoke. Leher egin deza-keen gerra kontrolatzerik izango ote du? Bi milioi t'ardi dira Pakistana erre-fuxiatuak, paxtunak %90 batean. Pax-tunen eskaerak —Paxtunistan batu bat, azken batean— ezin ditu Pakistanek



Malakandeko kanpamentua, Pakistanen. Azken hamarkadetakoa herbesteratzerik masiboena munduan.

irentsi. Horregatik saiatu da gerran ze-har etnia horren ahultzen. Gehiengo tadjika duten Jamiat-Islami eta Hezb-Is-lami (Khalirena) indartu ditu hortaz.

Gobernuaren indarrak

Kabulen jauste psikologiko bat eman-go dela esperantza dute oposizioek. Momentuz setioak darrai. Hotz gogorra dago, termometroak zeroz peko 25 gra-dutara jausi dira. Normaltasuna nabari bide da kaleetan, nahiz *nan* delakoa, af-ganiar ogi handia, eskasten hasi den, eta SESBetik horniketak helaraztea ge-roz eta zailago den: Salang lepoko ka-mioan badira borrokak eta abioi bideak gelditzen dira zabalik. Lehen erortzen ziren inguruko mendietatik projektil bat-zuk karriketara, orain ez. *Gehiegizko lasaitasuna* somatzen omen da. Sobie-tarrak joan eta boterean dagoen Parti-dua eror dadin lau-sei hilabete beharko direla jotzen du Modjaddidi Jab-hat-ekoak. Komunistak aurki klandesti-nitatera pasa beharko direla, jotzen du-te menditarrik optimistek, edota Ma-zar-I-Sharif iparraldeko hirira aldegin beharko dutela. Gobernuaren indarrak sobera gutxiestea da hori, diote beste batzuek.

50.000ko armada dauka gobernuak, *tsarandoya* ('guardia zibil' edo 'gendar-merie' aren antzekoa) erantsiz gero 110 bat mila soldadu. Gehi beste 80.000 mi-liziano, iturri batzuren arabera. Sobie-tar ikastegietan 30.000 soldadu eta bes-te 20.000 lagun formatu dira. Bi milioi-ko populazioa du Kabulek —eta 1980an 700.000 ziren, baina hori indarra zein ahulezia suerta daiteke, momentu ba-tean. Gobernuak bestalde lurraldearen laurden bat dauka bere esku, eta 26.000 herrietatik 7.000tara hedatzen du bere administrazioa. Armadan ez bada zerbait agitzen, erregimenak eutsi

egingo diola ematen da. Eskualde auto-nomoen partiketa iraunkor gertatuko ote da, luzaro?

Sobietarrentzat arras kaltegarria izango litzateke berak joan eta segituan gobernuua suntsituko balitz. Hirugarren munduko beren lagunen aurrean presti-jio galtze handia. SESBeko partiduaren beraren barruan ere sortu litezke tirabi-rak. Ez: koadro zibil eta militar onak gordeko dituzte Afganistanen. Moskuk bere aurkakorik aurkakoenak dituen lau alderdi fundamentalistek mendera-tuko ez duten gobernuua onartuko du, baldin eta gobernu horretan Kabulgo erregimenari loturiko elementuek parte hartzerik izango badute. Aurpegia gar-bituko lukete bederen. Herriaren Alder-di Demokratikoaren beraren parte har-tzea ez litzateke ezinbestekoa, ondo-rengo hauteskundeetan Alderdi horren parte hartzeko eskubidea ezagutuko balitz.

Azkeneko aukerak

Yakub Khan Pakistango kanpo ara-zoetarako ministraria ibili da lokarriak amarratzen. Alde batera hiru alderdi «tradizionalistak» topatu ditu. Funda-mentalistak, beste alde batera. Oso ne-kez bilduko dira zazpiak proiektu amankomun batean. Sobietarrak kan-poratzeko ahaleginak batzen bait zi-tuen gaurdaino. Orain, berriz? Gehiag-o txikizioa (milioi eta berrehun mila lagun hil ditu dagoeneko gerrak) ekidi-teko akordioa inponituko dela, baieza-tzen du zenbaitek. Baina lekuan lekuko kontraesanak izugarriak dira. Azaroan, 18 kamioitako konboi bat abiatu zen Kabuldik, Nazio Batuen jaki eta medizi-nez, Massud nagusi den Panshir bailara-rantz. Bidean, Hekmatyaren Hezb-Is-la-miko komando bat atera zaie material guztia konfiskatuz. «*Barnekaldean* —deskribitzen zuen egoera gerrilari ba-tek—, *talde batek jasotzen baldin badu erresistentzia-partidu batengandik la-guntza, inguruko taldeek beste parti-duengana jotzen dute, lortzen dute haiengandiko laguntza, eta barru bo-rrokak hasten dira segidan*». Material laguntzak lotzen ditu soilik, kasu asko-tan, barnekaldeko gerrilak eta kanpoal-deko direkzioak.

Perez de Cuellar Nazio Batuen idaz-kari orokorrak izan dezake giltza. Mi-ni-*shura* bat konboka lezake, Genèven, afganiar herriaren «frakzio guztiak» bil-duko litzukeena, *loya jirgah* edo batza-rre tradizional baten aitzin pauso gisa. Edo hori, edo Bushen administrazioak sobietarren proposamenari kasu eginik laguntza militarra zeharo etetea eraba-ki, edo nekez ebitatu ahalko da odolez-ko bainu epegabea.

PABLO SASTRE



Gerrilaren armarik beldurgarrienetakoa: Stinger misilak.